

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

582

18/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 2koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Ángeles Hernández Gómez andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxu egoitza) 2A Kirurgia Orokorreko Gainbegirale kargutik kentzen baita, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen azaroaren 17ko 2426/2022 Ebazpenaren bidez, María Ángeles Hernández Gómez andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxu egoitza) 2A Kirurgia Orokorreko Gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Ángeles Hernández Gómez andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxu egoitza) 2A Kirurgia Orokorreko Gainbegirale kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urtarrilaren 8ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 2a.

Arabako ESiko zuzendari-gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.